

# HAUSNARKETA-OTOITZA: “Lor daiteke beste ekonomia-mota bat”

## 1.- SARRERA:

Ebanjelioa barri ona da ekonomiarentzat, honako hau bazterketa edo desbardintasunaren ikuspuntutik edo gizatasunezko ikuspuntutik bizi daitekelako. Ezinbestekoa da maitasuna ekonomian txertatzea, dagokion egitekoa hobeto bete daian gizartean.

## 2.- BIDEO: [https://www.youtube.com/watch?v=HVKpPv\\_l4Yw](https://www.youtube.com/watch?v=HVKpPv_l4Yw)

## 3.-HAUSNARKETARAKO:

“...gaur esan behar dugu: «ez, bazterketaren eta ekitaterik ezaren ekonomiari». Ekonomia horrek hil egiten duelako. Biztanle asko baztertuta eta kanporatuta uzten dituelako: lanik gabe, etorkizunik gabe, irtenbiderik gabe. Gizakia kontsumoko ondasun gisa hartzen du ekonomia horrek, erabili eta bota daitekeen ondasun bat bailitza. Hasiera eman diogu «bazterkinen» gizarteari eta, gainera, horixe da sustatzen dena. Orain, esplotazioaren eta zapalketaren fenomenoak ez ezik, bazterketaren fenomenoak ere ezarri da gurean, eta bizi garen gizarteko kidetasun-sentimenduaren erroetan eragiten du; izan ere, baztertuak ez dira gizarteko mailarik baxuenetan, periferian edo botererik gabe bizi, gizartetik kanpo baizik. Baztertuak ez dira «esplotatuak», baizik eta zaborra, «soberakinak»” (Evangeliu Gaudium Aholku Apostolikoa, 53).

Horrelaxe, irmotasun horrekin esplizitatu ditu Frantzisko aita santuak desberdintasun handiak sortzen dituen eta planetaren jasangarritasuna arriskuan jartzen duen sistema ekonomiko honen ondorio makurrak.

Saihestezina bailitza aurkezten diguten egoera horren aurrean, harreman ekonomikoetarako esparru berri bat behar dugu, zeinean lehentasuna ez duen izango etekin ekonomikoak bakarrik eta pertsona guztien giza eskubideak errespetatuko diren.

Bizkaiko Caritasek ekonomia solidario baten aldeko apustua egiten du, indarrean dagoen sistema ekonomikoaren aurrean. Dagoeneko martxan dagoen eredu ekonomiko bat da; izan ere, zenbait pertsona, komunitate, erakunde eta sare ekimen multzo bat bultzatzen ari dira ekonomia justizia sozialaren eta giza eskubideen zerbitzura jartzeko asmoz. Ingurumenaren eta baliabideen errespetua epe laburreko interesen aurretik jartzen duen ekonomia bat.

Begirada-aldaketa bat egin behar da, eta “aberastasuna”, “gizarte ongizatea”, “duintasuna”... eta antzeko terminoak berriro pentsatu eta analizatu, balio-aldaketa bat eragingo duten proposamen berriak erakitzeko. Ekonomia horrek oinarri hauek izango lituzke:

- Pertsonaren zentraltasuna, jarduera ekonomiko orotan pertsona xede gisa hartuta, baliabide gisa hartu beharrean.
- Ekitatea, pertsona guztien duintasuna eta giza eskubideak errespetatuta.
- Enplegua, garapen pertsonal, sozial, politiko eta kulturala eragiten dituelako.
- Planeta eta bertako baliabideak zaintzea eta errespetatzea, kontsumo arduratsu eta eraldatzaile baten bidez.
- Pertsonen eta erakundeen arteko kooperazioa, lehiakortasunaren aurrean.

- Ekimenen bideragarritasuna, iraunkortasuna eta errentagarritasun integrala, irabaziak berriro inbertitzeko eta banatzeko ekimen horien helburu sozialean.
- Ekimen ekonomikoak ezarri diren ingurunearekiko konpromisoa, tokiko eragileekin eta sareekin elkartuta.

“Ekonomia humanizatzeko” konpromiso hori gauzatzen ari da dagoeneko zenbait esperientzia alternatiboren bidez, eta horren adibide ditugu bidezko merkataritza, kontsumo arduratsu eta eraldatzaileak, finantza etikoak eta ekonomia soziala.

#### **GALDERAK:**

*Egia da mundua ekonomiari esker mugitzen dela? Konturatzen zara desoreka sortzen duen sistema ekonomiko batean bizi garela? Badago ekonomia alternatiborik gure artean? Zer jarrera duzu haren aurrean? Badu eraginik gugan maila pertsonal, komunitario edo sozialean? Inplikatzeko gaitu?*

#### **4.- BANATZEAREN ZEINUA**

Aurreko hausnarketatik gurea sentitzen dugun hitz bat idazten dugu, eta, zutik jarrita, hitza irakurtzen dugu.

#### **5.-OTOITZA:**

Jauna, zeure esku handietan jarri gura dot neure burua,  
buztin krematsu banintz lez moldatu naiena,  
eta egundoko maitasunaz busti naiten.  
Egun horretan, Jauna, Zu nire sendotasuna,  
une gatxetako babesa zarala sentitu daidala.  
Umea amaren besoetan lez bizi gura dot.  
Amaren hegoen pean babestuta dagoan txitatxoa lez.  
Benetan sinistu daidala, Jauna, Aita zaitudala,  
txoria eta arrosaren gainetik zaintzen nozula.  
Bildu naiala gauean zure egundoko maitasunaren samurtasunak.  
Eta urteera guztiak itxita dodazala ematen dauanean,  
izan zaitez Zeu nire urteera, itzulera bako ibilaldia,  
bizitzan gertatu jatan gauzarik onena.

Amaitzera doan arratsaldean neure burua abandonatu gura dot,  
libre sentitu, habira itzultzen dan txoria lez.  
Zeure eskuetan itzi gura dot neure burua,  
kezka guztiak alde batera itzita,  
euskarri zaitudala pozarren sentituta,  
zure garia jateko mahaikide nazala egiaztatuta.  
Neure burua abandonatu gura dot,  
jakin badakidalako ez deustazula huts egiten,  
leial zatozala hitzordura,  
poztasuna zarala atsekabearen,  
bakea bonben erdian,  
inork kenduko ez deustan poztasuna.  
Neure konfiantza zara,  
gertatzen jatan guztia maitasunaren balantzaz neurtzen dalako.